

## *Eskola txikia, herri bizia*

Mikel Aramendi: Etengabe ikasten  
Zaharrek berri: Herriko apeederoa  
Ibilbidea: Zaldibia-Olakosai-Zaldibia





U sadio zaharrei jarraituz, udako solstizioarekin batera eguzkiaren ahalmena irudikatzeko ospatu ohi dugun San Juan bezperako suak aurten ere itsasondotar andana bildu ditu bere itzulian. Urteko gaurik motzena dena, gau magikoa da inondik ere eta suaren epelean, sardina erreak janez eta dantza eginez ospatu dugu herritarrok antzina antzinatik datorren ospakizun pagano hau.

Sugarrak itzaltzearekin batera ailegatu da, beraz, Itsasondo 2.0 herri aldizkari honen 17. alea, iraganeko kontu eta istorio zaharrak gogoratu eta gaurkotasunez beteriko gaiak gure artera zabaltzeko gogoz beste behin. Aurrerapen txiki bat baino ez den arren, zaharrak berri atalean apeaderoaren lekukotasuna jaso dugu eta elkarrizketen atarian, berriz, Artetxe baserriko seme den Mikel Aramendi kazetariarekin izaniko solasaldia aurkituko du irakurleak. Azken hilabeteotan herrian jazotakoak ere bildu nahi izan ditugu orrialde hauen artean. Honela, herriko Ijitu dantza elkarteak antolatutako Elkartopadantza jaialdia eta 8. aldiz ospatu den Goierriko eskola txikien jaia gogora ekarri nahi izan ditugu, baita gure herriko txikitxoekin eskolatik zortzi herrialdetan barna abenturaz beteriko Nairobitarra bisitatzera eginiko irteera ere. Aranzadi elkarteak paisaiaren zaintzailer izan diren baserritarrak oroitu nahi izan ditu eta udalak landa eremuari bultzada eman asmoz abian jarri dituen ekimenak aipatzen dira. Kontu hauek eta gehiago jakin nahi badituzue... astindu aldizkaria eta gozatu Itsasondo 2.0-rekin!

Hurrengora arte eta bitartean kontent bizi! ■



DOINUA: *Gure aurreko guraso zaharrak*

*Kontu zaharrak berritzen hasiz goaz apeaderora, jubilatuek mende laurdena ospatu dute gustora, baserritarrak paisaia zaintzen mendeetako ganora, herriko festak abuztukoak badatoz Itsasondora eta Artetxe kazetaria albistez osatuko da.*

*Umeak dantzan eta eskolak festa giro atseginez, Nairobitarrak bisitatzeko pozik, abentura grinez. Adingabeen babeslekua gauzatzeko ahaleginez, buka dezagun ibilaldi hau izerdia eraginez Zaldibiatik Olakosaina joan-etorria eginez.*

Sarrerako bertsoak

- 03. Udaleko berriak:** Dirulaguntzak. 2011. urteko likidazioa
- 04-05. Eskola:** Nairobitarra
- 06-07. Haurreskola**
- 08-10. Elkarrizketa:** Mikel Aramendi: Etengabe ikasten
- 11. Agenda 21:** Itsasondo ekinez egina
- 12-13. Gazteria**
- 14-15. Zaharrak berri:** Herriko apeaderoa
- 16. Aranzadi:** Baserritarra paisaren zaintzaile
- 17. Kale inkesta:** Herriko festak
- 18. Ongizatea:** Adingabeen babes
- 19. Itsasondoko aitona:** Bizi-nai elkarteak 25 urte
- 20. Guraso elkarte:** Goierriko eskola txikien festa
- 21. Informatika:** Komunikazio mota merkeak
- 22-23. Ibilbidea:** Zaldibia-Olakosai-Zaldibia
- 24-26. Hemeroteka**
- 27. Lorezaintza eta sukaldaritza**
- 28. Oharrak. Kultur agenda**

## Udaleko berriak



### Diru-Laguntzak

Udalak diru-laguntzak lortzeko egin dituen ekintzen ondorioz, azken hilabeteetan diru-laguntza hauek lortu dira:

- Urkian izandako luizia konpontzeko, Goimen elkarteak 3.320,10 euroko laguntza eman du: % 45.
- Udaletxea berritzeko lanen barruan jarri beharreko igogailuaren obra finantzatzeko, Eusko Jaurlaritzak 19.359,27 euro agindu dizkigu.
- Itsasondo 2.0 aldizkariaren kostuak finantzatzeko, Foru Aldundiak 600 euroko laguntza agindu digu, eta herritarren parte-hartze ekintzak sustatzeko, 5.000 eurokoa.

Eskatutakoak, berriz, hauek izan dira:

- Foru Aldundira
- Haur eta gazteak sustatzeko sistema indartzeko
- Tokiko Agenda 21eko ekintza plana berrikusteko
- Hondakinen prebentzio arloan, hiri hondakinak murrizteko programa egiteko



### Azken batzarra

2012ko apirilaren 26an egindako batzarrean, udaletxearen erreforma obren barruan berogailuaren eta sistema energetikoen kontratazioa eta liburutegia-ludoteka obrak kontratatzeke ple-guak onartu ziren. Lizitazioa nahiko aurrerata dagoenez, aipatu obrak uztail aldera hasiko direla aurreikusten da.

Bilera berean aipatu obrak aurrera eramateko aurrekontuko zenbait partidatan izendatutako kredituak aldatzeko espedienteak onartu ziren.

2012ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Areti Gkika Udaleko alkateak kargua uzteko aurkeztutako errenuntzia onartzea erabaki zen. Bere ordezkari berria izendatu bitartean, Asier Garrok jarraitzen du alkate funtziotan.

### 2011. urteko likidazioa

2012ko martxoaren 30ean hartutako alkate dekretu bidez onartu da 2011ko aurrekontuaren likidazioa. Likidazioa 381.042,54 euroko superabitarekin itxi da, xehetasun honekin:

2012ko abenduaren 31ko diruzaintza	208.827,38 €
Kobratu gabeko saldoak	286.100,03 €
Ordaindu gabeko saldoak	113.884,87 €
Diruzaintza	381.042,54 €

Kobratu gabeko saldoetan azpimarratzekoak dira Kutzarekin hitzartutako 120.000 euroko mailegua oraindik hartu gabe dagoela, eta Aldundiak udaletxe obretarako agindutako diru-laguntza, berriz, obrak amaitutakoan jasoko dela. Horretaz aparte, kobratu gabe dauden zenbait zerga eta tasa ere badaude. Horregatik, ordainketa atzerapenarekin egiten dutenei zor dituztenak prozedura exekutibo bidez kobratzeko tramiteak egiten ari gara azken hilabeteetan.

Ordaindu gabeko gastuetan, kopuru handiena da Aldundiari 2011ko kontzertatutako zergen partaidetzagatik itzuli beharreko 50.392 euroak.

Egoera ekonomiko honetan, Itsasondoko Udaleko kontuen egoera nahiko ona dela esan daiteke. Halere, kontu handiarekin aritu beharko dugu, 2012. urtean Aldunditik jasotako aportazioen zati bat 2013an itzuli egin beharko dela aurreikusten baita. ■

# Eskola txikia izateak baditu abantailak, eta ez gutxi

*Itsasondoko eskola Eskola Txikia da, eta horrek baditu abantailak. Lehenik eta behin, premiak berak eskola handiek erabiltzen ez duten metodologia erabiltzera bultzatzen gaitu irakasleak: eskola txikietan, adin desberdinetako haurrak elkarrekin egoten dira, eta horixe da eskola txikien ezaugarri nagusia.*

**M**etodologia tradizionala baztertzera daramatza horrek. Guk beste era bateko metodologia aukeratzen dugu: proiektuen bidez lan egitea. Ikasleak adinaren arabera geletan bereizi gabe eta ikasliburuak erabili gabe irakatsi ohi dugu. Ikasleentzat oso aberasgarria da adinak ez bereiztea eta proiektuen arabera lan egitea.

Beste alderdi positibo bat da ikasleek lortzen duten autonomia maila. Zaharrenek ardura handiagoak hartzen dituzte txikiagoekin, eta txikiagoek, handiagoei

jarraitu eta imitatu nahi horretan, ikasi egiten dute. Gainera, elkar laguntzen dira, elkar motibatu... irakaskuntza partekatua sortzen da horrela. Txikienek zaharrenek txikiagoengandik ikasten dute, eta zaharrenek txikiagoengandik. Adinkako sistema tradizionala, gainera, ez da naturala. Bizitzan adinaren arabera banatzen gaituzten alor bakarretakoa da eskola tradizionala, ez lagun artean, ez kirol ekintzetan, ez musika kontzertu batean... ez beste ezertan ez gara adinaren arabera banatzen. Zergatik eskolan bai?



Umeak Nairobotarraren maketarekin jolasean.

Proiektu bidez lan egiteko modu hau gure ikastetxean finkatzen ari den metodologiaren ardatz nagusia da (baina ez bakarra). Hona hemen azken hilabete hauetan gure eskolako txikienek (2-3-4 eta 5 urteko haurrek) aurrera eraman duten **Nairobotarra proiektuaren adibidea:**

Munduko 8 lurraldetako ipuinez osatutako autobusa gelara ekartzea izan zen abiapuntua. Hortik aurrerako guztia ikasleek jakinmina asetzera bideratutako ekintzak izan dira.



Nairobotarrari buruzko informazioa bildu eta liburuxkak sortu ditugu.



Hainbat formatutako autobusak eraiki eta margotu ditugu. Geografia eta munduko lurraldeei buruz zertxobait gehiago jakin dugu.



Munduko mapak eta lurraldeak begiratzen.



4-5 urtekoak Sahara, Euskal Herria eta Andeei buruzko liburuxkak aurkezten. Eta azkenik, nola ez, Nairobotarraren sortzaile batekin (Josu Iztueta) hitzordua egin dugu, eta Tolosara txangoa antolatu dugu, autobusa geure begiekin ikusteko eta Josuri bidaietako bitxieriak kontarazteko.■



# Ikasturte bukaera

Ikasturte bukaera iristen ari da, eta aurten egindakoaren berri eman nahi dizuegu. Horretarako argazki sorta bat aukeratu dugu. Ea gustatzen zaizkizuen!

Ikasturte honetan, 7 haur hasi ziren hasiera-hasieratik, eta 11 haur pasa dira azkenean gure haureskolatik. Aurten taldean adin tarte handia izan dugu, eta zaharrenak erai-kuntzekin jolasean ari ziren bitartean, txikiak alfondran biraka eta biraka aritu dira. Taldea txikia izan denez, denak elkartu eta gela bakarrean egon gara, bigarren gela lotarako gela bezala utziz.  
Hona hemen zenbait argazki, eguneroko martxan zer gauza egiten ditugun ikusteko. A ze kuadrilla daukagun!



1 Goizean, lehenengo eginkizuna da haureskolara zein etorri den ikustea. Horretarako, etxeko edo haureskolako argazkiak jartzen ditugu.



2 Pattinek egunero-egunero hamarretakoa ekartzen digu, eta berarekin kantatzen dugu... Ummm! ze gaileta goxoa!



3 Batzuetan, hamarretakoa gozo-gozoa izaten da... urtebetetzeak ospatzen ditugunean!



4 Hurrengo lana desberdina izaten da, egunaren arabera. Batzuetan saltoka ibiltzen gara koltxonetan, besteetan potoekin eta hainbat motatako materialekin jolasean, eta noizbehinka esplorazioa! Aze kuxidada!




5 Gozoa eta garratza... Zein aukeratuko dut?



6 Hau da paper festa!!



7 Txikienekin gehienbat motrizitatea eta esplorazioa lantzen ditugu, eta azken honetarako altxorren saskia da aproposena... Zenbat traste dagoen saski honetan!



8 Txikitan, pixkanaka biraka-biraka motrizitatea lantzen joaten gara, lau hankatan hasi arte, eta, ondoren, oinez!



9 Bazkaltzeko garaian ere esploratzen ibiltzen gara... baina ari gara pixkanaka mahai-tresnak erabiltzen ikasten!



10



11 Batzuetan ezusteak izaten ditugu, eta Olentzero eta Mari Domingi etortzen zaizkigu bisitan!



12 Eta hainbeste lan egin ondoren... denak lotara goxo-goxo... "Lotan nago, begiak itxita..."

Aurten ikasturtea 8 haurrekin bukatu dugu, eta hurrengo urterako 3 izango dira. Beraz, haureskolan tokia badagoenez soberan, 0-2 urte bitarteko haurren gurasoak haureskolara hurbildu zaitezten animatu nahi zaituztegu, matrikula epea zabalik egongo da eta urte osoan. **Eta bestela, antolatu dugun ate irekietara azaldu, eta haureskola gertutik ikusiko duzue! Uztailaren 4an izango da, 17:15ean.**  
Besterik ez, adixkideak! Opor zoragarriak pasa eta indarberrituta hasi datorren ikasturtea eskolan! Muxu potolo bat gure partez! Aio aio!!



**Aktualitateari lotutako albisteak eta batez ere nazioarteari lotutakoak aztertu eta hauek modu ulergarrian aletu eta azaltzeko gaitasun handia du kazetariak. Etengabe ikasten ari da Aramendi, eta, hala, hil arte ikasten jarraitzeko gogorik ez zaio falta Artetxe baserriko semeari. Bere ahotsa askotan entzun dugu irratian, eta bere iritzia hainbat egunkari eta aldizkaritan irakurri dugu sarritan. Solaskide atsegina eta aparta dela erakutsi digu beste behin ere Mikel Aramendik.**

## Mikel Aramendi

# Etengabe ikasten

### Itsasondon izan al zara aspaldian?

Egia esan gutxiago joaten naiz; izan ere, asteburuak izango nituzke joateko moduan, baina azkeneko urteetan nire asteburuak zoramen hutsa izan dira. Amaren etxera noizean behin joaten naiz.

### Amak gehiagotan joatea nahiko du ala?

Bai, beno, zorionez telefonoa oso asmakizun ona da, eta ondo funtzionatzen du. Aurrez aurre egoten ez bagara ere, elkar entzuteko aukera hor dugu.

### Itsasondo azken urteetan asko aldatu dela esango zenuke?

Bai, noski. Baina aldaketa sakonena errepide nagusia kendu zitzaionean edo gaur egungo N-1 egin zenean etorri zen. Nik uste dut herrian sekulako aldaketa gertatu zela orduan. Geroztik, eraiki egin da, eta, azken batean, gure haurtzaroko Itsasondok zerikusi gutxi du gaur egungoarekin.

### Nola gogoratzen duzu haurtzaroko Itsasondo? Artetxe baserritik herrira makina bat kilometro egina izango zara ala?

Ez, ez dago batere gertu. Artetxetarrok goizean goiz herrira jaitsi eta gero, gure izebaren etxean, hau da, aitarren jaiotetxean bazkaltzen genuen. Gero, iluntzean bueltatzen ginen etxera. Orduan oso txikiak ginen, nik seizazpi bat urte izango nituen, eta distantzia handia zegoen, baina, garai hartan, ez zitzaigun hala iruditzen.

### Noiz joan zinen zu herritik?

Oso gaztetan; izan ere, bi anaia zaharrena Tolosako Sakramentinoetara ikastera joan ginen bederatzi edo hamar bat urterekin. Ni hamabost urterekin bueltatu nintzen etxera. Beno, Sakramentinoetan geundela, udan eta Gabonetan ere oporretan etxera joaten ginen, eta, azkeneko urteetan, asteburu bueltatzen ginen Itsasondora.

### Bederatzi urterekin herria utzi eta kanpora ikastera joatea ez zen ba xamura izango?

Nik zorte handia izan nuen bi zentzutan. Batetik, eskola berean nire anaia nuelako, eta horrek babes handia ematen zidalako. Sakramentinoetan egon ziren batzuekin hitz egin dut gerora, eta kontatu izan didate beraiantzat askoz ere gogorragoa izan zela han bakarrik egotea. Bestetik, esango nuke Sakramentinoen kongregazioa bereziki modernoa zela. Noski, gaur egungo hezkuntza ereduak konparatzen badugu, ez litzateke homologagarria izango, baina, garai hartako gainontzeko kolegio eta frailetegietan izaten zenaren aldean, orain konturatzen naiz gu askatasun eta gizalege nahikoarekin hezi gintuztela leku hartan.

### Tolosan ikasketak egin zenituen, Itsasondon lagunarterik egiteko modurik izan al zenuen?

Bai, itsasondoar gehiago ere baginen Sakramentinoetan. Garai hartan, inguruko herrietako gaztetxoentzat ikasketak egiten jarraitzeko irteera bat zen ikastetxe hau. Beasaingo institutua ez zen oraindik existitzen, eta erdi-mailako hezkuntza esango genukeena, gehiena esku pribatuetan zegoen. Beraz, itsasondoar bastante geunden Sakramentinoetan. Ikastetxean eta oporretan ere beti elkarrekin geunden, eta, beraz, oso harreman estua sortu zen.

### Sakramentinoetan egon ondoren, zein ikasketa egin zenituen?

Ikasi, ahalik eta gehiena ikasi dut. Ikasketak egin eta burutu, ordea, oso gutxi bukatu ditut, egia esateko. Nik Beasaingo institutuan ikasi nuen, garai hartako UBI bukatu arte, eta gero lanean hasi nintzen. Nahiko zorte txarra izan nuen; izan ere, lanean hasi eta hiru hilabete, poliziari atxilotu egin ninduen. Esan behar dut atxiloteta hartatik, hala moduz, baina nahiko modu onean libratu nintzela. Hiru hilabete kartzelan pasa nituen, eta kartzelatik atera nintzen, behin-behineko askatasunean. Orduan CAF-en lanean hasi nintzen, eta urtebetez egon nintzen bertan. Garai hartarako,

politikan, sindikalgintzan eta beste hainbat kontutan leporaino sartuta nengoen. CAF-en lanean ari nintzela, gainera, Franco hil zen, eta, egia esan, bere azken hilabeteak nahiko gaizki pasa nituen. Egizu kontu behin-behinean nengoela aske, eta eginkizun politiko nahiko korapilatsuetan sartuta nengoela. Eta, hala, trantsizioaren lehen fasea, alderdi politiko eta sindikatuen legalizazioarena, Goierriin pasatu nuen, nolabait esatearren soldaduskarako denbora egiten. Niri 1977an tokatu zitzaidan soldaduska egitea, leku txarrean, gainera; izan ere, marinara joan behar nuen ia bi urtez. Baina zortea izan nuen, Ferrolen bertan soldaduska egitetik libratu nintzen eta. Handik ez nintzen Goierriara bueltatu, baizik eta Donostiara. Eginkizun politikoetan jarraitu nahi nuen, eta, horrez gain, ikasketekin ere segi nahi nuen. Hala, Euskal Filologian matrikulatu nintzen. Hirugarren ikasturterarte jarraitu nuen, baina nire jardun politikoa eta ikasketak uztartu ezinak zirenez, ikasketak alde batera geratu ziren. Orduan, politikan eta batez ere prentsa politikoan buru-belarri sartu nintzen. Horixe da nire ikasketen historia laburra.

### Gaur egun kazetaria zarela esan dezakegu, ezta?

Bai, praktikak ematen baditu tituluak, dudarik gabe bai. Badakizu kazetarion munduan, kazetari izateko tituluak zenbateraino behar diren edo ez askotan eztabaidatu izan dela. Kontuan izan gure inguruko kazetari ezagun asko, batez ere zutabegileak, hau da, izen propioak, gehienak ez direla kazetariak. Asko, gainera, oso ikasketa mundu ezberdinetatik datoz. Nire ustez, kazetaritza jakite modu bat baino gehiago artisautza lan bat da. Egia da kazetaritzak badituela trikimailu teknikoak. Prentsa idatzian, adibidez, erredaktatzen jakitea teknika bat da.

### Sindikatuarekin eta politikarekin zerikusia duten hainbat aldizkaritan lanean ari zara aspalditik, ezta?

Bai. Esate baterako, 1983an, Donostialdean "La Voz de Euskadi" kalera ateratzeko proiektua jarri zen martxan. Proiektu hartan, garai bateko "La Voz de España"-tik zetorren jende asko zegoen lanean. Egunkari bat kaleratu nahi zuten, eta aurreneko aldiz, euskaraz idatzitako egunkari bat kaleratzeko proba egin nahi zuten. Beno ba, kontu horretan buru-belarri sartu nintzen, eta, gainera, arduradun izatea tokatu zitzaidan. Hilabete batzuetan "Orria" izena zuen astekari bat kaleratzea lortu genuen, baina ez zegoen azpiegitura ez tekniko eta ez ekonomiko

nahikorik, eta gure proiektua ez zen aurrera atera. Baina proiektu horren inguruan, euskarazko egunkari baten behararen eztabaida sortu zen, eta, nolabait esango nuke, gerora atera ziren "Eguna" eta "Egunkaria" hazi hartatik sortu zirela.

Egunkari bat hutsetik ateratzeko lana izugarria da, aspergarria eta itogarria, baina kazetaritzan ikasi behar den guztia hantxe ikasten da.

### Zenbait egunkaritan zutabegileak izateaz gainera, Euskadi Irratian eta beste hainbat komunikabidetan iritzi-emailea ere bazara. Tertuliakide izatea ez da ba erraza izango, ezta?

Ez, egia da ni ez naizela sekula lasai joaten tertulia batera. Iritzi-emaileon lanaz hitz egingerakoan, jendeari gu erdi bertsolari eta erdi sermoilariak garelako esan ohi diot, baina praktikan ez gara ez bertsolariak ez eta sermoilariak ere. Batetik, ez dugu hizkuntza bertsolariak bezain ondo maneiatzen. Bestetik, gurea ez da doktrina banatzea, gurea irizpiderako oinarri batzuk, datu batzuk ematea da. Nik tertulietan formula nahiko sinplea jarraitzen dut, gauzak ahalik eta landuena eramaten saiatzen naiz. Dena den, egia da beti ezin dela hori egin, tertulietan momentuan bertan jakiten duzu zer gai landuko duzun, eta ezinezkoa da gai guzti-guztiak aurretik landuta eramatea. Edozein kasutan ere, denbora izanez gero, solasaldira joan aurretik ordu erdi bat edo ordubate pasatzen dut ordenagailuaren aurrean, Interneten eta batez ere Wikipedian maxiatzen. Badakit Wikipediak akats mordoak dituela, baina datu asko eta oso zehatzak ematen ditu, eta nik oso maitea dut. Entzuleak datuak behar ditu, argibideak. Gero, entzulea bera oso gai da bere ondorioak ateratzeko.

### Zu aspalditik gerturatu zinen Interneten mundura. Gogoan duzu zure lehenengo ordenagailua?

Bai, nire lehenengo ordenagailuak ez zuen disko gogorrik. "La Voz de Euskadi" aurrera ateratzeko ahalegin hartan, prentsa gintzari lotutako informatikan bete-betean sartu behar izan genuen. Garai hartako ordenagailuek gela berezi batean egon behar zuten, etengabeko hozte sistema batekin, eta sekulako zaratara ateratzen zuten. Kazetariok oraindik makinaz idazten genuen, eta gero teklis-tek pasatzen zuten, baina garai hartarako garbi zegoen etorkizunean kazetariak zuzenean idatzi beharko zituztela tes- tuak, informatikaren garaia gainera zetorrela garbi zegoen.



### Gaur egun, eguneroko albisteak irakurtzeko nora jotzen duzu, sarera edo paperezko egunkarietara?

Gehienbat sarera, dudarik gabe. Paperezko hiruzpalau eskuratzen ditut, baina Interneten hogei-hogeita hamar egunkari inguru begiratzen ditut ia egunero. Askotan ez dut lehenengo orria baino irakurtzen, baina gustatzen zait adibidez Europako prentsari bistadizo bat botatzea. Estatu Batuetakoak ere jarraitzen ditut, eta munduaren beste puntan zer gertatzen den jakiteko ere gustatzen zait oso urruneko egunkariak begiratzea; adibidez, Indiako "The Hindu" ia egunero begiratzen dut.

### Aipatu dituzun egunkari horietan guztietan krisia izango da azkenaldiko protagonistetako bat, ezta?

Krisiak duen gauza on bakarra da orain arte oso kultura finantziario gutxi genuela, eta, krisiaren ondorioz, ikasi egin beharko dugula. Krisiak duela lauzpabost urte harrapatu gintuen batez beste, jakite ekonomikoa oso gutxirekin, eta hori kezagarria da. Egoera horrek oso biluzik utzi gintuen, gauzak nondik zetozen eta nora doazen ulertzeko. Hori kezagarria da herritarron kasuan, eta are kezagarriagoa agintarien kasuan. Ekonomiak baditu bere arauak. Hala ere, horrek ez du esan nahi egia idatzi bat dagoenik edo errezeta magikoak daudenik. Gertatzen ari zaiguna ulertzea ona litzateke, baina oraindik kostako zaigu.

### Mikel, aita izateak asko aldatu zuen zure bizitza?

Bai, pentsa dezakezu. Bai, bai, asko aldatzen du. Hasteko, beste ikuspegi bat ematen dizu. Ikuspegi horretan pentsatu behar duzu zuk jarraipen bat daukazula, ordura arte zu *alfa* eta *omega* zara, eta haurrak dituzun momentuan konturatzeko zara *alfa* agian izango zarela, baina *omega* ez. Gainera, egungo gizarte ereduak eta hezkuntza sistemak ondorio sozial nabarmen bat sortzen dute: haurren soziazialitate bihurtzen da helduon soziazialitatea, gure seme-alaben lagunengurusoak gure lagun bihurtzen dira.

### Urte hasieran jakin genuen ustez Itsasondon ere haur bat lapurtu zutela. Zertan pentsarazi zizun albiste horrek?

Harritu ninduen, baina ez hainbestearino. Halakoak gerta zitezkeenaren zantzuak banituen, ez kasu jakin horrenak, baina bai oro har. Jakinda duela hogeita hamar-



1960an Urkiko festetan hartutako argazkia da. Artetxeko hiru zaharrenek (Joxe Luis, Agurtxo eta Mikel) eta Mujika-etxeko bi lehengusuak (Juan Manuel eta Jaione) agertzen dira, Santikutzeko neskekin batera. Jertse ilunez, Mikel.

berrogei urte gauzak nola egiten ziren, egia esan, ez zitzaidan horren harrigarria egin. Garbi dagoena da gerraren ondoren ingeniari-tza soziala deituko geniokeen prozesu bat hasi zela. Hau da, emakume gorriei haurrak lapurtzen zitzaizkiela, haur horien zuzentasun ideologikoa bermatzearen, eta haurrik ez zuten beste sendi batzuen behar praktikoa asetzearren. Gero merkatu hori galdu zenean, eskaera hor zegoen, eta eskaintza non-baitetik atera behar zen. Hori noski, delitu larriak bakarrik eginez lor zitezkeen. Nik Argentina eta Txileko kasuak ezagutzen nituen, eta banekin hemen ere gerra garaian halakoak egin zirela. Dena den, hemengo kasuan bere tamainak harritu nau, ez baitira kasu bakan batzuk.

### Aurrera begira duzun ametsen bat?

Ni nagoen adinean, ilusioetako bat izaten da nola edo hala jubilaziora iristea, eta eguneroko lanaren murrizketatik ateratzea. Hala ere, ni seguru nago nik ez dakidala lanik egin gabe bizitzen. Orain arte bezala, nire gustoko lana bada, hil arte segiko nuke lanean. ■

## X galdera motz

### Itsasondoko zein txoko aukeratu zenuke?

Murumendiko punta.

### Eta Donostian?

Igeldoko gaina, adibidez. Ez naiz hondartzazalea.

### Zenbat txapela dituzu?

Dozena erdi. Denak tamaina berdintsukoak eta betiko koloredunak.

### Zer da zuretzat Facebook?

Ez nago Facebooken. Nik Internet oso neurrian erabiltzen dut harremanetarako. Posta elektronikoa ezinbestekoa zait, baina, Facebook-a ez zait asko gustatzen. Nire ustez, ez du ekarpen intelektual handirik egiten.

### Liburuak paperezkoak ala elektronikokoak?

Paperezkoak, baina gero eta gehiago ari naiz irakurtzen pantailan. Nire ordenagailuan begiratzen baduzu, une honetan hamar bat mila liburu klasiko izango ditut. Liburu elektronikoen bilduma osatzen ari naiz.

### Zer ekartzen dizu gogora AHTk?

Nik uste dut handi-maundikeria bat dela. Lanak zein puntutan dauden ikusita, nik uste dut ia atzerazina dela, obrak bukatuko dituztela. Nire ustez, horrek sortuko dizkigun zor ekonomikoak luzaroan ordaindu beharko ditugu. Gutxi pentsatuta eta asko gastatuta egiten ari den zerbait da.

### "Aita" hitzak zer ekartzen dizu gogora?

Ardura batez ere. Gizakiaren jarraitasunaren berme bat zara, eta hori alde batetik zama bat da, baina, noski, baditu bere atseginak ere.

# Itsasondo ekinez egina

Itsasondon, denon artean, auzolanean, Herri Plan berria diseinatzera goaz, datozen urteetan Udalak bideratu behar dituen egitasmoak finkatu eta Itsasondon herritarren parte-hartzea indartzeko helburuarekin.

Duela zortzi urte, Itsasondoko Udalak Agenda 21 egitasmoari ekin zion. Proiektu honen barruan, eta hainbat Herri Batzar egin ostean, Agenda 21eko Ekintza Plana adostu genuen. Bertan, Udalak, zetozen urteetan aurrera eraman beharreko hainbat ekintza zehaztu genituen. Udala, plan hortako ekintzak garatzen joan da azken urte hauetan, eta plan berri baten beharra dagoela ikusi du.

Bestalde, Itsasondon herria piztu beharrean gaudela ere ikusten dugu: herri izaera landu, herri kohesioa indartu eta herri bizi baten beharra daukagula ikusi da. Eta guzti honetarako ezinbestekoa da GUZTION PARTE-HARTZEA.

Duela zenbait urte erabilitako leloari berriz helduz, Itsasondoko Herri Plan berria herritarron artean burutzeko helburuarekin.

Ekimenaren aurkezpena pasa den larunbatean (ekainaren 16an) egin genuen, gazteek antolatutako II Herri Egunaren baitan. Hiru lan-taldetan banatuta, 25 bat lagunek, herriaren egoeraren inguruko hausnarketa bat burutu genuen herriko plazan. Bertaratutakoek parte-hartzearekin ekin genion lanari, gai ezberdinen inguruan eztabaidatu eta hamaika ekarpen jaso genituelarik. Lerro haueetatik ESKERRIKASKO DINAMIKAN PARTE HARTU ZENUTEN GUZTIOI!!!!

Behin aurkezpena eginda, herriaren inguruko diagnostiko labur bat landuko dugu datozen hilabeteetan, oportunitate bueltan, lan-taldeetako lanari ekiteko. Izan ere, irailetik aurrera, hiru lan-talde osatuko ditugu **Hirigintza eta Ingurumena, Herri Bizitza eta Ongizatea**. Talde hauek bizpahiru hilabetez ariko dira lanean, urte bukarrerako Itsasondoko Herri Plan berria esku artean izango dugularik. Lan-talde hauek sortu eta funtzionatuko badute, herritarrok inplikatu eta parte hartzen dugulako izango da.

Datozen hilabeteetan berriz ere gogoraraziko badizuegu ere, animatu eta izena eman nahi duzuen lan-taldean, horretarako Udalera joz edo **ekinezegina@itsasondo.net** helbide elektronikora mezu bat bidaliz. ■



# Gazteria alorra



Gazteak Olaberriko karretan.



Gazteak patata tortilla lehiaketan.

## Nerabeak:

Itsasondoko nerabeek hainbat ekintza egiteko aukera izan zuten Aste Santuko oporraldian. Alde batetik, Olaberriako karretara joan ziren, eta bertan karrerak egiteko aukera izan zuten. Bigarren egunean, patata-tortilla lehiaketa egin zen, eta neska taldeak irabazi zuen. Gurasoek lagundu bazuten ere, nerabeak asko saiatu ziren, eta tortilla ederrak dastatzeko aukera izan genuen, ondoren. Azkeneko egunean, hainbat motatako mazedoniak egin eta probatzeko aukera izan zen. Ekintzetan, 12 neska-mutilek hartu zuten parte, eta giroa oso ona izan zen.

Ekainean, alkoholari buruzko tailerrak egin dira gaztelekuko nerabeentzat eta beren gurasoentzat. Helburua izan da alkoholari, tabakoari eta drogei buruzko lanketa egitea, alde batetik nerabeekin, eta, bestetik, haien gurasoekin.

## Uda kanpaina:

Ekainean gaztelekuak atek ixten baditu ere, nerabeentzako ekintzek aurrera jarraitzen dute. Horrela, nerabeek ekintzak egiteko aukera izango dute: tailerrek, irteerak... Beti bezala, nerabeek elkarrekin ondo pasatzeko asmoz antolatuko dira ekintzak.



Parte-hartze saioan parte hartu zuten gazteak.

## Haurrak:

Haurren atalari dagokionez, maiatzaren 17an bilera bat egin zen gaztelekuan. Bertan, 0-12 urte bitarteko haurren gurasoak eta Udala bildu ziren. Itsasondoko Udala 0-12 urte bitarteko haur eta nerabeei eta haien gurasoei eskaini nahi dizkien zerbitzuei buruzko hausnarketan murgilduta egon da. Hainbat proposamen aztertu dira, eta horiei buruz eztabaidatu nahi zen.

Hain zuzen ere, frontoiko gela txikiaren inguruan eta eguraldi txarrerako izan daitekeen haur txokoaren inguruan hausnartu nahi da.

Horretarako, maiatzaren 17an gaztelekuan eginiko bileran, 6 guraso, gazteria suspertzailea eta kultur zinegotzia bildu ziren. Bertan, frontoiko gela txikiaren inguruan eztabaidatu zen. Udalaren helburua da gela horren erabilera ardurasua bultzatzea, beti ere gurasoen eta haurren beharrak eta interesak asetu nahian. Horretarako, bai Udalari, bai bertaratutako gurasoei ere interesgarria iruditu zitzaion gela txukuntzea eta modu antolatu batean funtzionatzea. Guraso elkartearekin elkarlanean, hurrengo hilabetean gela hori txukundu eta martxan jarriko da. Martxan jarri ahala joango dira erabakiak hartzen.

Horrez gain, etorkizunean obra egin ostean, antola daitekeen haur txokoari buruzko eztabaida eta parte-hartze prozesu bat ireki nahi du Udalak. Prozesu horren berri ere eman zen bileran, eta bildutakoei interesgarria iruditu zitzaion. Bileren bidez, denen artean hausnartuko da seme-alabentzat egokia izan daitekeen espazioari buruz, eta proposamenak aztertu eta erabakiak hartuko dira.

Prozesuan parte hartzeko deia zabaldu nahi da, denon artean proposamenak aztertu eta guztion gustuko zerbitzu bat jartzeko.

## Gazteak:

Martxoan, 18-30 proiektua izan genuen, gazteentzako parte-hartze saioa. Saio horiek egin nahi ziren, besteak beste, Itsasondoko Udalak jakin nahi duelako herriko gazteek herrian zer behar ikusten dituzten. Gainera, behar horiei buruzko hausnarketa bateratua egiteko espazioa ahalbidetu nahi du. Azkenik, behar horiek asetzeko eskuduntza noren esku dagoen identifikatu, eta etorkizuneko lan-ekimenak hobeto zehazteko bidea ireki nahi du.

Horrela, martxoko larunbatean, 6 gazte elkartu ziren gaztelekuan. Bertan aurkezpena egin eta proiektuaren nondik norakoak azaldu ostean, bertaratu ziren gazteei galdera hau egin zitzaion: zein dira zure beharrak, gazte gisa?

Gazte bakoitza hausnarketan murgildu zen, eta bururatzen zitzaiona adierazi zuen. Horiek taldean eztabaidatu, eta ondorio batzuk atera ziren. Hona hemen emaitzak:

## Gazteen hausnarketaren emaitza:

### Industria

- Plaza inguruko lantegiak kanpora ateratzea "herriguneari indarra emateko".

### Etxebizitza

- Alokairu sozialak edo alokairu merkeagoak.
- Udalak gazteak emantzipatzeko laguntzak eskaintzea.
- Gazteentzako etxebizitzetarako buruzko informazioa ematea.
- Etxebizitza berriak: tasatuak eta babes ofizialekoak. (Jende gaztea ez dadin herritik joan).

### Ekintza kulturalak

- Gazteentzat ekintza gehiago (aerobic, yoga,...)
- Ekintza kulturetan parte-hartzea bultzatzeko zerbait egin.
- Ekintza kultural gehiago, herriko eragileek parte hartuz.

### Liburutegia:

- Liburutegi berria wifiarekin.

### Kirola:

- Kirol ekintza gehiago.
- Kirol desberdinak egin ahal izateko eremu bat.
- Txakurrak aske ibiltzeko toki bat.

### Merkataritza:

- Denda gehiago herrian, herri bizitza sustatzeko.

## Ondorengo eztabaida:

Denon artean sailkapena aztertu zen eta hainbat galdera atera ziren mahai gainera. Baina garrantzitsua hau izan zen: Nori dagokio hauek betetzea?

Parte-hartzaileek argi adierazi zuten ia gehiena Udalari dagokiola, baina ekintza kulturetan erantzukizuna eragileena eta herritarrena izan beharko lukeela. Horretarako, azpimarratu zen paper garrantzitsua izan dezakeela kultura batzordeak, eta, beraz, gazteek ere bertan parte hartu beharko luketela. Gazte asanbladaren funtzioa ere ezinbestekoa da. Eragileen arteko elkarrekintzaren garrantzia ere aipatu zen.

Saio horrekin ikusi zen gazteen ustez Udalak etxeko lan ugari dituela, baina gazteak ere jabetzen dira beraien aldetik ere jarri behar dutela.

Orain, Udala aztertzen eta hausnartzen ari da aurrerantzean zer pauso eman behar dituen. ■

Trenaren etorrera aurrera-pauso handia izan zen Itsasondoko bizimoduan. Abantaila handia. Aldaketa izugarria. 1930ean amaitu zituzten geltokiko lanak, eta trena martxan jarri zuten, azkenean. Jose Manuel Sarasola, orduko alkatea, eta trenbideen sareko arduradunen arteko hiru urteko gutun-trukearen ondotik etorri zen geltokiaren inaugurazio ofiziala.

Trena iritsi aurretik, oso bestelakoa zen herriko martxa. 1930. urtea zen. Garai hartan inork gutxi zuen autorik herrian, inork ez esatearren. Bizikleta zen askorentzat eguneroko garraibide nagusia; motorra bestela. Eta, bizikletarik edo motorrik ezean, oinez egin behar izaten zituzten herritarrek alboko herrietara iristeko egin beharreko kilometroak. Hala, bada, gauza handia izan zen Beasain eta Irun lotzen zituen tren geltokia izatea herrian. Trenbide sareko arduradunen asmoen berri jasotzean, beraz, laster eman zien proiektuari baiezkua Sarasola alkateak eta

udal ordezkariak, herritarren premiak gogoan.

1927ko otsailaren 7an jaso zuen alkateak Espainiako Iparraldeko Burdinaren Bideen konpainiatik lehen gutuna. Beasain eta Irun arteko tren sarean Itsasondoko geltokia egiteko baimena eskatzen zieten burdin sareko arduradunek herriko agintariei. Haien esanetan, tren ekonomikoentzako edo tranbientzako izango zen soilik geltokia edo geralekua. Trenak herritarren bizimoduari emango zizkion erraztasunak gogoan, azkar eman zioten baiezkua herriko agintariei. Bi urte geroago, 1929ko maiatz amaieran, Itsasondon geltokia egiteko eskaera egin zieten Itsasondo, Arama eta Altzagako alkateek tren konpainiako arduradunei.

Azarorako jaso zuten alkateek erantzuna. Nasak, hormak, betelanak eta geltokia eraikitzeke egin beharreko lanak egiteko eta 10.290 pezeta (gaur egungo 60 euro, gutxi gorabehera) jartzeko prest ote ziren galdegin zieten arduradunek alkateei. Aurrekontu zehatza eta geltokiaren planoak igorri

zizkieten, gutun horrekin batera. Obrako ingeniariak prestatutako aurrekontua zen. Madril eta Hendaia arteko bidean, 585,817 kilometroan, Itsasondo herriaren parean geralekua egiteko beharrezko lanen eta materialen zerranda luzeak osatzen zuen aurrekontua; denera, lau orrialdeko aurrekontua zen. Hori bai, Division de Ferrocarrilesek oniritzia jaso aurretik ez zutela proiektua abian jarriko jakinarazi zieten arduradunek agintariei.

Itsasondo, Arama eta Altzagako alkateek ez zuten luzaroan pentsatu kontua; baiezkua eman zioten proposamenari. Trenbide sareko arduradunek ere ontzat eman zuten egitasmoa. Lanak hasteko, beraz, zehaztutako dirua sartzea baino ez zen geratzen. 1930eko martxoan egin zieten diru eskaera alkateei: 10.290 pezeta sartu beharko zituzten, obrak egitearen truke.

Dirua sartu ostean, lanak egiten hasteko aitzakiarik ez zuten. Geltokiko obrek ez zuten luze iraun. 1930eko ekainaren 10erako lanak amaituak izatea aurreikusuten zuten trenbide sareko arduradunek.

Obren amaiera iristear zela, eta uda garaia izanik, bidaiari gehiago ibiliko zirela gogoan izanda, ekainaren 15etik aurrera trena Itsasondoko geralekuan geratzeko eskaera egin zien Jose Manuel Sarasolak trenbideen arduradunei, gutun baten bidez. 1930eko maiatzaren 14an bidali zion gutun hori Itsasondoko alkateak Enrique Grasseti, Espainiako Iparraldeko Burdinaren Bideen konpainiako zuzendariordeari. Obren amaierarako egun gutxi geratzen zirela ikusita, bigarren gutun bat bidali zion alkateak ekainaren 6an, eskaera berbera eginez.

Aurreikusi bezala, 1930eko ekaineko lanak amaituta zeuden, eta trena joan-etorriak egiten hasi zen. Trena Itsasondotik igarotzen zen, bai, baina geratu, ez zen geratzen; ez zuen geldialdirik egiten Itsasondoko geralekuan. Protesta egiteko gutuna igorri zion alkateak trenen konpainiako zuzendariari. 1930eko urria zen. Herritarren nahiak, eskaerak eta beharrak babesteko eta bultzatzeko asmoz, trenbide sareak herrian geralekua egiteko eskaerari baietz esan ziola gogorarazten zion gutun horretan. Lanak aurrera eraman ahal izateko beharrezko diru kopurua ordaindu zutela, eta herritarrek auzolanean lurra berdindu zituztela ere aipatzen zion alkateak gutunean. Ahalegin horiek guztiak eginagatik trena herrian ez zela geratzen jakinarazten zion gutunaren amaieran. Arazoa konpontze aldera, haren esku zegoen guztia egiteko eskatzen zion zuzendariari, adeitasun osoz.

Gutun horrekin aski ez, eta bi egunera, urriaren 22an, beste gutun bat igorri behar izan zioten Udaletik trenbide sarearen trafikiko ikuskatzaileari, Mariano Ordoñezi. Geltokiko lanak amaitu zirela lau hilabete igaro ziren arren, trena oraindik ez zela herrian geratzen gogorarazi zion Ordoñez jaunari. Trena ez geratzeko arrazoiren bat ba ote zen galdegiten zioten Udaletik trafikiko ikuskatzaileari.

10.290 pezetako kostua  
Inaugurazio handia

Astebetera jaso zuten erantzuna Madrildik. Irailaren 22tik baimena emana zegoela, eta azaroaren 1etik aurrera Altsasu eta Hendaia arteko zerbitzua bidaiarientzako martxan jarriko zutela agindu zioten gutun hartan arduradunek Sarasola alkateari. Bide batez, bidaiariek ezingo zutela ez txakurrik ez maletarik eraman gogorarazteko aprobetxatu zuten aipatu gutuna.

Lanak amaituak izan arren, Trenbideen Administrazio eta Banaketa arloaren baimena lortzea ezinbestekoa zela jakinarazi nahi izan zion bi egun geroago igorritako gutun batekin. Tren lineak ikuskatzea eta baimentzea zen Administrazio eta Banaketa arloaren ardura, eta, beraz, haien baiezkorik jaso gabe ezin zela zerbitzu berria eskaini zioten arduradunek. Gauzak argitu ziren. Beraz, okerrik ezean, azaroaren 1etik aurrera trenek geldialdia egingo zutela Itsasondon agintzen zion gutunaren amaieran.

Gutunak agintzen zuena betetzen bazen, beraz, laster beteko ziren hila-bete eta urte luzeetako herritarren ametsak: trenak geldialdia egingo zuen Itsasondon. Zerbitzuarengatik eta herritarrek eta Udalak egindako lanarengatik eta ahaleginarengatik zoriondu nahi izan zituzten trenbide sareko arduradunek.

Irrikaz itxaron zuten eguna iristear zen. Zerbitzua eta geltokia inauguratzea baino ez zen geratzen. Alkateak, udal ordezkariak osoaren izenean, trenbide sareko arduradunak gonbidatu nahi izan zituen geltokiaren inaugurazio egunera. Urriaren 30ean, gutuna bidali zuen Sarasola alkateak Madriler. Hurrengo egunean, telegrama bat bida-

li zion arduradunak, "zeregin asko" zituela eta "tamalez" ezingo zela Itsasondora etorri esateko.

Ez zen trenbide sareko arduradunik agertu geltokiaren inauguraziora, bai, ordea, udaletako ordezkariak eta herritar mordoxka; argazkian ikusten denez, apaizak ere izan ziren ekitaldian. Hainbeste desiratutako zerbitzuak ez zuten gutxiagorik merezi.

Trenaren arazoak hortxe amaituko zirela uste zuten Udaleko ordezkariak, baina, trena geratzen hasi eta gutxira, azaroaren 6an, beste gutun bat igorri behar izan zion Itsasondoko alkateak trenbide sareko zuzendariari, 2059 eta 2082 trenak geratzen ez zirela eta. Tolosan, Villabonan eta Hernanin geratzen zen trena zen 2059 zenbakiduna. Itsasondo nekazari herria izanik eta herritarrek euren produktuak merkatuetara saltzera joateko ohitura zutenez, tren hori geratzea herritarrentzat ezinbestekoa zela gogorarazi zion arduradunei. Era berean, 2082 trena, Donostiara joaten zen trena, geratzea ere garrantzitsua eta eroso zela aipatzen zion, itsasondoarrek euren kontuak konpontzera maiz joan behar izaten zutelako hiriburura. Herritarrentzat tren horiek geratzeak zuen garrantzia gogoan izan, eta zegokionari geldialdi horiek baimentzeko eskatzen zion alkateak.

Trenarekin izan zituzten hasierako gorabeherak konponduz joan ziren, pixkanaka. Udaleko artxiboan, bederen, ez da ageri alkatearen eta tren sarearen arduradunen arteko beste gutunik. 1930eko azaroko gutun horrekin amaitzen dira trenbide sareko arduradunen eta Itsasondoko alkatearen arteko gutun-trukeak.

Egunean tren gutxi batzuk eta horiek, gainera, atzerapen handiarekin ibiltzen ziren hasierako urte haietan. Urteen poderioz, zerbitzua hobetuz joan da. Gaur egun, laurogei urte geroago, trenak zehaztutako orduan iristen dira, eta, egunean, ia ordu erdiro tren bat dago Brinkola zein Irun aldera.■

## Trenaren joan-etorriak

Laurogei urtetik gora bete dira Itsasondon tren geltokia egin zutenetik. 1930eko ekainean amaitu zituzten Madril eta Hendaia lotzen zituen trenbide sareko Itsasondoko geralekuko lanak. Obrak amaitu arren, ordea, trenak ez ziren geratzen hasieran, eta herrian trena gera zedin eskatu behar izan zien Jose Manuel Sarasola alkateak trenbide sareko arduradunei



Inaugurazio eguneko zenbait argazki.



Ezaguna da azken urteetan nekazaritzak eta abeltzaintzak jasan duten gainbehera. Baserri gehienetan jende adinduna baino ez da geratzen, eta oinordekoek geroz eta denbora eta interes gutxiago azaltzen dute lan horietan aritze-

ko. Kontuan hartu beharrekoa da gainbehera horrekin batera gure kultura, ohitura eta paisaiaren adierazle garrantzitsuak galtzen ari direla, baita naturaren aberastasun eta mantenuarekin estuki lotuta dauden elementuak ere.

## Baserritarra paisaiaren zaintzaile

Itsasondoko landa-eremua udalerraren %13 da, gutxi gorabehera, eta Lasarte, loia, Urkia, Gohierri eta Lizardi auzoen artean banatzen da. Udalak, baserritarren egoeraz eta egoera horrek naturaren kontserbazioan duen eraginaz jabetuta, bultzada bat eman nahi dio Itsasondoko landa-eremuari. Horretarako, eta Eusko Jaurlaritzak biodibertsitatearen onurarako ematen dituen diru-laguntzez baliatuz, baserritarren elkarlanean aritu nahi du. Elkarlan horren helburua naturaren aberastasuna izanik, baserritarrek laguntza jaso dezakete euren lurretako hainbat elementu fabrikatzeko. Laguntza hainbat motatakoa izan daiteke, kasuaren arabera: batzuetan materiala (landareak, esaterako) eman beharko da, eta beste batzuetan, eskulana.

Esan bezala, ekimen horren bitartez natura eta paisaia hobetuko dituzten ekintzak faboratu nahi dira. Horien artean daude, adibidez, lursailen arteko mugetan eta bide ertzetan hazten diren landare-hesiak, harresiak eta fruta-arbolak. Elementu horiek biodibertsitatea hobetzeaz gain, baserritarren alde jokatzen dute, haizearen aurkako babesa eskaini, polinizazioa hobetu eta izurrien aurka babesten baitute. Horrekin lotuta, txarrantxaren ordeko landare-hesiak indartu nahi dira. Txarrantxa, gainera, abereen ongizatearen aurka doa, eta landare-hesiek higaduraren aurkako babesa eta itzala ematen dute. Erreka alboan dauden lursailen kasuan ere, errekaetako alboetako landaredi naturala errespetatzea beharrezkoa denez, landare horiek berreskuratzea ere faboratuko da. Horrek guztiak zuzenki eragiten du uraren erregulazioan, eta uholde eta higaduraren aurkako babesean. Horrez gain, belardien berreskurapenean ere lan egin nahi da, sasi eta belar txarrak ezabatuz, bai eta larre eta belaze inguruetan basotxoak garatuz ere.

Baina ez da lehen aldia Udalak gisa horretako lanetan diharduena. Aurreko urteetan loia eta Lasarte auzoetako baserritarrekin aritu da; besteak beste, landare-hesiak jartzen eta fruta-arbolak landatzen. Hala ere, garrantzitsua da ekimen horiek Udalerriko beste auzo batzuetara zabaltzea ondare naturalaren alde jokatu nahi bada. Horregatik, eta honen bitartez proposamena gainontzeko baserritarretara zabaltzea nahi da. Inork elkarlan horretan parte hartzeko interesa badu, Udalarekin kontaktuan jarri besterik ez du egin behar, hasteko.

Horrez gain, aditzera eman nahi dizuegu Udalak nekazaritza ekologikoari buruzko hitzaldi-ikastaroa antolatuko duela, bai eta *herrigunetik gertu dauden baratzen I. lehiaketa* ere. Oraindik data zehaztu gabe badago ere, hurrengo hila-beteetan nekazaritza ekologikoari buruzko hitzaldi-ikastaroa egingo da. Horren bitartez, barazki ekologikoei eta kontsumo arduratsuari buruzko irizpideak azalduko dira. Azkenik, *herrigunetik gertu dauden baratzen I. lehiaketaren* bidez, baratze ederrenak, osasuntsuenak eta ingurunean hoberean integratzen diren horiek sarituko dira. *Animatu, zaindu herriko paisaia eta ez utzi zure baratzea oharkabean pasa dadin!* ■

## Herriko festak

1. Parte hartzen al duzu Itsasondoko festetan? Eta nola? Parte hartzen ez baduzu, zergatik?
2. Zer kendu edo gehituko zenioke festetako egitarauari?
3. Ba al zenekien festen batzordea dagoela?



Iker eta Eñaut

1. Bai, parte hartzen dugu, eta oso ondo pasatzen dugu.
2. Jende gehiago moztortzea gustatuko litzaiguke. Agian gai deigarri bat jarritz gero, jende gehiago moztortuko litzatekeela pentsatzen dugu.
3. Bai, bileretara joatea gustatzen zaigu, zertaz hitz egiten den jakiteko edota zerbait interesgarria aporteratzeko.



Joxe Mari

1. Asko gustatzen zait ostiral gaueko herri afarira joatea. Igandean, Iparraldeko txarangarekin giro polita sortzen dela uste dut.
2. Ez dakit.
3. Bai, badakit festetako batzordea dagoela, baina ez dut parte hartzen bileretan.



Ana eta Jesus

1. Programatzen den guztian parte hartzea gustatzen zaigu.
2. Ez genuke ezer ere kenduko. Agian zer edo zer jarri daiteke, herri guztiak parte har dezan.
3. Bai, badakigu festetako batzordea dagoela, baina inoiz ez gara joan. Hala ere, behar den guztian laguntzeko prest gaude.



Iker

1. Bai programatzen diren ekintza gehienetan parte hartzen dut.
2. Kritikatu edota ezer aporteratzen ez duten pertsonak kenduko nituzke. Lan egiteko prest ez dagoen jendea eta kritikatzeko duena, hain zuzen ere.
3. Bai, ezagutzen dut, eta ahal dudana guztietan parte hartzen dut.

**A**dingabeen babesaren udaletako eta aldundietako gizarte zerbitzuei dagokien eskumena da. Horrela, indarrean dagoen legediak argi ezartzen du herri-administrazio horien betebeharrak dela haur eta nerabeei eragiten dieten arrisku eta babesgabetasuneko egoera guztietan esku hartzea eta prebenitzea.

Arrisku egoera esaten zaie haurraren edo nerabearen garapen pertsonal edo sozialari kalte egiten dieten egoerei. Bestalde, Kode Zibilaren arabera, babesgabetasun egoerak dira adingabeak zaintzeko legeak ezarritako babes-betebeharrak ez betetzeagatik, ezin betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik gertatzen diren egoerak.

Horrelako kasuen aurrean esku hartzeko, indarrean dagoen erkidegoko legeak ezartzen du, arrisku egoeretan, oinarritzko gizarte zerbitzuek kasua hartu eta horren gaineko ikerketa, balioespena eta orientazioa egin beharko dutela. Haurren babesgabetasun egoera oso larria dagoela uste denean, esku-hartze espezializatua proposatu beharko litzateke, eta Aldundia izango litzateke esku-hartzearen erantzule nagusia.

Araudiaren inguruan askoz gehiago aipa daiteke, baina orokorrean herriko gizarte zerbitzuen lanaren zati garrantzitsu bat adingabeei loturik dagoela azpimarratu beharko genuke. Garrantzitsua, tartean haurrak eta nerabeak daudelako, eta denbora behar delako aipaturiko ikerketa horiek egiteko.

Argi dago ez direla egoera osoak izaten, eta beti tentuz eta zuhurtasunez jokatu behar dugula gizarte zerbitzuetatik. Aldi berean, aipatzekoa da babesgabetasun edo arrisku jarrerak oso erlazio zuzena izaten dutela familia osoak eta espresuki gurasoek bizi duten egoerarekin. Horrela, beraz, garai gogor xamar hauetan, errazagoa da familia ugari orain arte funtzionatu izan duten baino okerrago ibiltzea.

Edozein kasutan, adingabeen babesari buruz hitz egiten dugunean, azpimarratzekoa da gizarte zerbitzuentzat ezinbestekoak direla hezkuntza eta osasun sistemak, besteak beste. Sistema horiek haurrekin harreman zuzena dutenez, balio handia du eman dezaketen informazioak.

Azkenik, aipatu, babesgabetasun egoerak antzematen direnean, hainbat baliabide daudela esku hartzeko, haurrek familiaratik irtetea erabaki aurretik, eta, beraz, azkeneko neurria izaten dela haurra familiarengandik banatzea. ■



## Adingabeen babesaren



Baztango Santxotena museoan (Nafarroa). 2007ko uztailaren 5ean.



## Bizi-Nai elkarteak 25 urte

**O**rain dela 25 urte, beste inguruko errietan ari zirala ikusirik, adiñeko itsasondotar askotxok bat artu eta sortu zuten Elkarte au 1987ko Uztailaren amaieran egintzan Batzarrean. Orretarako, Udalak utzi zigun udaletxe azpian orain arte gure biltokia izan zana.

Lenegotik arrakasta andia izan zuen bada 124 bazkidekin eman zitzaion asiera. Gerora 140tik gora izan gera bañan gaur 106 gera. Zartzen ari gara la garbi ikusten da, bada asieran 13 bakarrik baziran 80 urtetik gorakoak, gaur egun, bazkide gutxiago izanagatik, 39 bagera 80 urte betetakoak. Garbi azaltzen da gure zartzea eta izar-di berrien utsuna eta onek sortzen digun kezka. Adierazpen bezela, asierako 124 bazkide zirenetik oraindik ere iru badira batzordea osatzen dutenak, tartean txangoak egin da noski.

Gure eginkizunak 25 urte auetan era askotakoak izan dira eta oietatik ospagarrienak ibil-aldi edo ekursioak, itzaldiak, jokuk, bazkideen apariak eta erriko 65 urtetik gorako guztientzat urtero urtero prestatzen degun eguna. Beste errietako, batez ere Goierrikoan artu-eman estuak ditugu gure bearretan eta beste gauza askotakoak.

Lanik geiena ibil aldietan egin degu. Elkartean asieran oso giro desberdina za oraingotik, bada jendea ibiltzen zan oñez, oso gutxi trenez eta gutxiago autoan. Orregatik bein edo bein, bigarren autobusa bete degu eta penagarrigoa, joan nai zutenak, tokirik ez zegoelako etxean geratu ere bai. Lenengo urtean etzan izan ibilaldirik bañan arrezkero 140 egin ditu. Oietatik 97 autobusean eta leku askotara iritsi gera. Gipuzkoatik kanpo izan gera Bizkaian, Araban, Nafarroan, Kantabrian,

Burgosen, Ifar-aldean eta Frantzin. Beste 43ak, oiñezkoak deitzen diogunak, 1997garren urtean asi giñan eta danak probintzi barruan egin ditugu.

Itzaldiak berriz asiera asieratik asi ziran eta batzate beste urtean lau izan dira.

Zillar eztaiak ospatzeko afari bat eratzeko asmon gabiltz.

Gure kontu geienak azaldu ditugu bañan gure kezkek azaltzea ere bearrezkoa iruditzen zaigu. **Danen onerako eta ez beste ezertarako dala eta errian bazkide bear luteken asko dagoela bazkide egin gabe, besterik ez bada laguntasunagatik, bere izena eman dezala berritu eta indartzeko gure elkarteak.**

Agur eta milla esker. ■

# Baziren behin Goierriko 4 herri: Olaberria, Zerain, Gabiria eta Itsasondo

## VIII. Goierriko Eskola Txikien Festa

**4** herri horiek txikiak zirenez, bertako eskolak ere txikiak ziren. Txikiak izanagatik, bakoitzak bazituen bere nortasun eta ezaugarriak, herri bakoitzak bere ezaugarriak zituen bezalaxe: Itsasondokoan 2 eta 12 urte bitarteko 66 haurrek ikasten zuten, Gabiriakoan 2 eta 12 bitarteko 49k, Olaberrian 2 eta 9 bitarteko 40k eta Zerainen 2 eta 7 bitarteko hamalauk.

Ezberdinak izan arren, bazuten batzen zituzten ezaugarriak: lekuan lekuko eraikinak agian kaskarrak ziren, eta Hezkuntza Ordezkaritzatik ez zuten behar beste laguntzarik jasotzen. Horrela bada, herri horietako haur batzuk inguruko beste herri batzuetako eskoletara joaten ziren. Baina, hala eta guztiz ere, bertan zeudenak batu egin ziren, inork ezin zuelako bere herria

eskolarik gabe ulertu, horixe baitzen herriari izaera ematen laguntzen zuen ezaugarri garrantzitsuenetako bat.. Han pasatzen zituzten bertako haurrek eta irakasleek, elkarreraginez, momentu polit asko. Zein aberatsak bertako harremanak!

Horrela bada, 4 herri horietako guraso elkarteek urtean behin eta aldiko herri batean elkartzea erabaki zuten.

Maiatzaren 5ean elkartu ziren 8. aldiz 4 herri horiek Itsasondon. Hasteko, goizeko 10etan mendira bueltatxo bat eman zuten. Batzuk Urkiara joan ziren, eta txikiak buelta txikiagoa egin zuten.

Gero, txikiak, Itsasondoko gazteek dinamizatuta, jolasean, aurpegiak margotzen eta marrazkiak egiten ibili ziren.

Denek elkarrekin bazkaldu eta gero, Patxin eta Potxin-en "Ohitura onak" emanaldia ikusi zuten. Baita denek dantza egiten bukatu ere!

Itsasondoarrak ez ziren berez oso dantzari trebeak, baina, entsaiatu zuten, eta beste herrien aurrean gaizki gelditu nahi ez zuten, Gaztelugatxeko martxa ederki asko dantzatu zuten.

Bukatzeko, herri guztiek bertso bana kantatu eta gero festari amaiera eman zioten. Hurrengo urtean, Olaberriari dagokio topaketa antolatzea.

Hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Itsasondoko plazan.

Milesker festa hau antolatzen lagundu diguzuen guztiei.

Itturri Txiki guraso elkartea



Gurasoak eta haurrak ibilaldian zehar.



"Ohitura onak" Patxin eta Potxinen emanaldia.

# Komunikazio mota merkeak

**Gaur egun, hitz egiteko eta mezuak doan bidaltzeko aukera daukagu, Interneti eta mugikorretarako sortutako aplikazioei esker.**

Internet etxean daukazueno jakinarazten dizuet beste pertonekin harremanetan jartzeko aukera ematen digula. Badakit zuetako askok hori badakizuela. Baina ez naiz ari messenger, facebook, tuenti eta beste sare sozial batzuei buruz. Baizik eta eskura ditugun programa informatiko batzuei buruz. Haien bidez, telefonoz arituko bagina bezala hitz egin dezakegu.

Badakit messenger programak ahots bidez komunikatzeko aukera ematen digula. Baina pertsona batekin bakarrik hitz egin dezakegu; hau da, ezin dugu elkarriketa berean bi, hiru, lau edo pertsona gehiagok parte hartu.

Horretarako, programa hauek ditugure eskura:

- Raid Call
- Skype
- Teamspeak
- Ventrilo

Programa horiek IPvoz izeneko programak dira. Zu eta zure lagunak zuek sortutako talde batean sartzen zarete (izan daiteke talde publikoa edo pribatua), eta bertan denok hitz egiteko aukera dauka-

zue. Klean egongo bazinate bezala, baina bakoitzak bere ordenagailutik.

Horretaz aparte, programa horiek idazteko chat bat ere badaukate, web-orriak lagunei pasatzeko edota mikrofonoa izorratuta baldin badaukazu, behintzat lagunekin harremanetan egoteko, nahiz eta zuri ez entzun. Esan beharra dago Skype programak diru-truke bitartez aukera ematen duela programatik zure lagunak telefonoetara deitzeko.

Programa horiek on-line jokoetan jolasten dutenek erabiltzen dituzte gehienbat.

Baina abantaila horiek ez daude ordenagailuan bakarrik. Mugikorretan (gaur egungo smartphonetan) abantaila antzekoak ikus ditzakegu.


Gaur egun modan jarri den aplikazioa da WhatsApp (Nokia batzuetan, Android daukaten mugikor guztietan eta IOS daukaten Iphoneetan). Messenger antzeko zerbaite da, baina mugikorrerako. Oso aplikazio ona da, doakoa (iphonetan izan ezik, aplikazioa erosi egin behar baita) eta azkarra. WhatsApp aplikazioa daukaten beste

lagunei bakarrik bidal diezazkiekegu mezuak, argazkiak, bideoak... Gainera, taldeak sortzeko aukera ematen digu, adibidez: koadrila, eskolako lagunak, laneko lagunak... Talde batean mezu bat idazten duzunean, talde horren barnean dauden guztiek irakurtzeko aukera izango dute.

Bestalde, Skype, TeamSpeak eta Ventrilo smartphonetan ere jar daitezke.

Viber aplikazioa ere badago, eta aplikazio horrek Viber daukan lagun bati deitzeko aukera ematen digu, gure mugikorra internet sare batean konektatuta baldin badago, edota interneteko tarifa kontratatuta baldin badaukagu gure mugikorrean. Dei hori doan aterako zaigu, dei hori ez baitugu egiten guk kontratatutako ahots tarifaren bitartez, baizik eta Interneten bidez.


Halako programa eta mugikorrerako aplikazio pila bat daude. Nik artikulu honetan aipatutakoak dira gaur egun gehien erabiltzen direnak. Oso interesgarria da gauza horiek jakitea, gure mugikorraren edota etxeko finkoaren fakturak murrizteko aukera ematen baititu.



# 14. Ibilbidea

## Zaldibia-Lazkao-Etxe-Olakosai-Zaldibia


**Iraupena: 3 ordu**  
**Ibilbidea:**  
**Zaldibia-Zentrala: 60'**  
**Zentrala-Olakosai: 60'**  
**Olakosai-Zaldibia: 60'**



**Deskribapena:** Amundarain erreka eskuinaldetik, parke botanikoa gurutzatu, eta Olalde baserrira inguratu gara. Baserrira eskuinaldetik erreka aldera inguratu, zubitxo bat zeharkatu, eta Arkakara doan bide asfaltatua aurkituko dugu (Zentraleraino arrasto zuri-hori-gorriak jarraitu). Arkakako norabidea jarraitu eskuinera, Aizkolariñe etxe aurrean dagoen zubia gurutzatu, eta Unanubieta baserrira iritsiko gara. Baserriaren albotik igaro, eta erreka eskuinaldetik bidea segituta, ezkerretara topatuko dugun pistari helduko diogu, Zubita baserrira iritsi arte.

Baserrira eskuinaldetik inguratu erreka aldera, langa bat zeharkatu, eta eskuinera hartuko dugu. Berehala datoren bidegurutzan ezkerrera jarraitu, eta iturri bat eskuinera uztearekin batera, erreka ezkerrean eta zubitxo baten alboan, Antsusieta baserrira aurkituko dugu. Zubia gurutzatu gabe erreka eskuinaldetik jarraitu, eta Antsusieta Teileri baserriaren eskuinaldetik pasako gara. Zuzen segi, eta aurrean Lazkao-etxe baserrira ikus dezakegu.

kegu. Hormigoizko bidea hartu, eta, zubia zeharkatu gabe, langa gurutzatu eta pistatik jarraitu, Zentralarekin topo egin arte. Zentrala atzean utzi, eta goiko erreperidera igoko gara. Errepidea eskuinera hartu, eta bordatxo bat pasatu eta segituan ezkerretik ateratzen den pistari helduko diogu (arrasto zuri-gorriak). 40 bat minutu goraka igaro eta gero, Olakosaira eramaten duen hormigoizko bidea irtengo gara. Bidean eskuinera hartuko dugu, Olakosaiko atsedenekura iritsi arte. Hemen atsedean hartu eta gero, bueltako bideari ekingo diogu. Hormigoizko bidea hartu Zaldibiako norabidean, Bitorietxe eta Iparragirre baserrietako bidegurutzeraino. Bien tartetik pasa ondoren (arrasto zuri-gorriak), langa zeharkatuko dugu. Beherantz zelai bat zeharkatu, eta, ondoren, basobideari jarraituko diogu, hormigoizko bidearekin topo egin arte. Eskailera estu batzuetan jaitsi, eta amaitzen zaizkigunean, ezkerrean Emakumaran baserrira ikus dezakegu. Langa pasatu, eta ezkerretik arrasto zuri-gorriak jarraituz Zaldibiara iritsiko gara. ■



## Ijittu Itsasondoko dantza taldea



**M**aiatzaren 26ko arratsaldean, gure herriko euskal dantza taldearen ekitaldi liluragarriaz goatzeko aukera izan genuen: ELKARTOPADANTZA EGUNA ospatu zen. Legorreta eta Olaberriako taldeekin batera eskaini zizkiguten dantzak. Azkeneko hauei dagokienez, guraso eta seme-alabek batera dantzatu zuten.

Oso polita izan zen Agurra eta Ikurrin dantzak talde guztiek batera eskaintzea; hunkigarria eta ederra benetan, talde eta herrien erakustaldia.

Elkartopadantza egunaren izenak adierazten duen bezalaxe, helburuetariko bat da, hainbat herritako dantzariak elkartuz eta topa eginez, gure kultura zabaltzea.

IJITTU Itsasondoko dantza taldea izena Alurreko kide Lorea Berasategi eta Naroa Uzkudunen eskutik sasoi honetan astero-

astero entseguetan tinko aritzen diren 12 laguneko taldeak ipini dio.

6 hurrez osaturiko dantza taldea orain dela 3 urte hasi zen. Aurreko ikasturtean, kopurua bikoizteaz gain, sendotu egin zela esan daiteke. Datorren urterako 18 lagunek eman dute jadanik izena taldean parte hartzeko. Ateak zabalik daude, hala ere.

2011n herriko gaztetxoekin osaturiko taldearekin batera izan zen ekitaldia. Bai aberatsa izango litzatekeela nerabe, gazte, heldu zein nagusiok animatzea honelako dinamika bat aurrera eramatera.

Iraileko herriko jaietan IJITTU Itsasondoko dantza taldeak dantzatuko du. Gure kaleak alaitasunez beteko dira, bertan ditugun itsasondoar esku pilotari, trikitilari eta dantzarien eskutik, beraiek baitira, modu batez edo bestez, euskal kultura aurrera daramaten hazi eta fruitu funtsezkoak.



## Argazki erakusketa bizi nahi elkartean

**I**tsasondoko Kultura Batzordeak antolatuta, Sara Gomez-en zahartzaroari buruzko argazki erakusketa izan da ikusgai Bizi Nahi elkartean, maiatzaren 25etik ekainaren 4ra.

Erreportaje horren bidez, Sara Gomez argazkilarik Margaritaren bizitza azaldu nahi izan du. 89 urte ditu Margaritak, eta, zahartzaroaren ondorioz, bere bizia etxeko lau paretan artean mugatuta geratu da. Bere betiko etxean, zazpi seme-alaba hazi ditu, eta oroigarri beteta dago beretzat paretako bakoitza. Amonaren eguneroko bizitza azaltzen dute argazkiek, eta etxeko txoko bakoitzak honen bizitzaren parte. Margaritarentzat, etxeko sukaldeko leihoa da denbora-pasa hobereana, bere argi-iturria baita, bizitzeko argia.



## Herri Urrats

**E**guraldia lagun, beste behin ere autobus bat bete herritar atera ginen Itsasondotik Senpere aldera.

08:00etan geratu ginen herriko plazan. Autobusa hartu, eta Senperera abiatu ginen. 10:30ak aldera iritsi, eta ordurako hamaiketako mahaiaren gainean genuen, gure zain; txorizoa, urdaiazpikoa, sagardoa... Hamaiketako ederra egin eta nahi zuenak kafea hartu ondoren, batzuek gerizpean eta beste batzuek lakuari buelta emanaz pasa genuen goiza, bazkal ordura arte, 14:00ak arte, hain justu.

Bazkalostea ere giro atseginean pasa genuen, autobuserako ordua iritsi zitzaigun arte. 18:30ean, autobusetik atera aurretik jarri genuen hitzorduan, denok autobusera inguratu, eta berriz Itsasondo aldera bueltan ginen. Haur, gazte nahiz heldu denok egun bikaina pasa genuen. Datorren urtean zu ere animatuko zarelakoan, datorren urtera arte!



## Urkiko maiatzeko Jaiak 2012

**M**aiatzaren 3an, Gurutze Deunaren egunean, eman zitzaizen jaiak hasiera. Meza ondorengo hamaiketakoan elkarteko jangela bete egin zen, eta batzuek kanpoko mahaietan egin behar izan zuten hamaiketako.

Eguerrian, bazkaria egin zen, eta iluntzean erromeria Laja eta Olarte trikitilariekin.

Maiatzaren 5ean, XXIX. mus txapelketa-ekin hasi ziren jaiak. Irabazleak Luis Aranburu eta Felix Garmendia izan ziren.

Ondoren, lagun arteko afaria egin zen elkartean, eta Laja eta Mikel trikitilariekin erromeria izan zen goizaldera arte.

Maiatzaren 6an, igandean, meza, hamaiketako eta bazkaria izan ziren lehenik, eta jende ugari bildu zen.

Arratsaldean, emakumezkoen eta gizonezkoen XXIX. toka txapelketa jokatu zen. 14 emakumezko hartu zuten parte, eta Lurdes Aranburuk irabazi zuen. 23 gizonezkoetatik, Felix Garmendia izan zen irabazlea.

Iluntzean erromeria egin zen egun guztian zehar trikitia jotzen aritu ziren Epelde eta Lutxurdio trikitilariekin.

Urkiko jaien alde zozketatzen den antxumea Felix Garmendiak eskuratu zuen.



## Gipuzkoako XIV. Ezti Lehiaketa

**M**anuel Agirre laz Ormaiztegin Goierriko txapeldun atera zen eta aurten, Apirilak 1ean, Zegaman ospatutako Gipuzkoako XIV. ezti lehiaketan irabazlea atera zen, ezti argitan. Zorionak Manuel eta segi horrela!



( lorezaintza gomendioak )

## Gardenia jasminoides

Aurkitu zuen botanikoari zor dio izena, Garden doktoreari. XVIII. mendean aurkitu zuen. Gardenia Jasminoides-aren jatorria Txinan eta Japonian aurki dezakegu. Arbustu txiki bat dugu, 30 cm-koa, gutxi gorabehera, eta jasmin usaina duten lore eder batzuk sortzen ditu. Bere hostoak berde ilunak dira, eta puntan bukatzen dira. 10 cm-ko luzera eta 2,5 cm-ko zabalera dute.

### Argitasuna

Argitasun handia gustatzen zaio, eguzki zuzena izan gabe. Loratzte garaian ez da lekuz aldatu behar, lorearen botoi guztiak galtzeko arriskua baitago.

### Temperatura

Neguan 10 graduraino jasan ditzake. Udan, berriz, 24 gradu jasaten ditu, gehienera jota, nahiz eta hezetasun handia izan.

### Ura

Euri-ur epelarekin ureztatu behar da, edo, halakorik izan ezean, karerik gabeko urarekin. Udan, maiz-maiz ureztatu behar da, baina ito gabe. Neguan, nahiko da astean behin ureztatzea.

### Ongarritzea

Loretan dagoenean, 14 egunetik behin agintzen duen dosiaren erdia.

### Hezetasuna

Urtean zehar, komeni da euri-urarekin noizbehinka ihintzatea. Inoiz ez da loreen gainean ihintzatu behar, loreak zikindu eta hondatu egiten baitira.

### Atmosfera

Aire korronteak ez ditu onartzen, baina aireztatze ona gustatzen zaio.

### Ontzi aldaketa

Bere garapena kontuan izanik, komeni da 3-4 urtez behin ontziz aldatzea.



**Maixel Garmendia**  
Izadia Loradenda. BEASAIN  
943 88 14 40



( errezeta )

## Patata tortilla gaztarekin

### Osagaiak: 4 lagunentzat

5 patata handi  
Tipula 1  
Piper berde 1  
12 arrautza  
10 gazta xerra (tranchete)  
½ l. esne gain  
Roquefort ale bat  
Olio, gatza

### Prestakuntza:

Patatak zuritu eta txikitu, eta frijitzen jarri, tipula eta piper berdearekin batera. Behin patatak prest daudela, olio guztia kendu, eta bol batean jarriko dugu. Ondoren, gazta xerra zatituak gehituko dizkiogu. Pare bat xerra aparte utziko ditugu gerorako. 8 arrautza gehitu, ongi nahastu eta gatza probatu.

Beste alde batetik, altzairuzko 4 zutari labeko bandejan jarriko ditugu, azpian labeko papera jarri erantsi ez dadin eta burrunzti baten lagunduta erdiraino beteko dugu patatekin egindako nahasketaz, erdian gordeta ditugun gazta xerrak laurdenetan moztu eta zati bat erdian jarri eta bere gainean arrautza baten gorringoa jarri eta beste gazta zati batekin estali eta berriz patata nahasketarekin bete. Labera sartu al den tenperatura altuenean horrela kanpoaldetik tortilla egin berehala ateratzeko eta barrualdea gordinik gera dadin. Bitartean eltze batean esnegaina eta roqueforta sutan jarriko dugu gazta urtu arte.

Tortillei moldea kendu eta roquefort saltsa botako diegu. Ongi egin ezkerko mozteko orduan barruan sartutako gorringoa gordinik izango da.



**Jose Ignacio Duhau**  
Rubiorena Jatetxea. BEASAIN  
943 88 57 60

## Oharrak



### Festa batzordea

Festa batzordea ia mar-tzan da. Bigarren deialdia behar izan zen jendea animatzeko. Buru-belarri daude ekintzak antola-tzen. Dena den, herritar guztiak daude gonbidatu-ta bileretara, festak guz-tionak baitira.

### Kultura batzordea

Kultura batzordea jada mar-tzan da, eta hilabetero 7 lagu-neko taldea biltzen da herriko ekintzei buruz eztabaidatzeko. Proposamenak egiteko leku aproposa da, eta, hori dela eta, herritarrei dei egiten diegu ba-tzordean parte hartzeko.

### Liburutegia

Udaletxea berritzen ari direla eta, gorabehera handiak izan dira liburutegiarekin. Hasiera batean aurreikusi gabe zeuden aldaketak egin behar izan gara, eta horregatik sortu da hainbesteko nahastea liburutegiarekin. Ondorioz liburutegiko lanak laister hasiko direnez, liburuak bertatik atera behar izan gara. Liburutegi berria martxan jartzean jakinarazi-ziko zahizue.

## Kultur Agenda

### Uztaila

**Uztaila 2:** Uda kanpaina hasiera Egunero, 10:00etatik 13:00etara  
**Uztailak 11:** Bizi Nahi elkartearen 25. urteurren eguna UZTAILAK 14, larunbata  
Bizi Nahi elkartearen, 25. urteurren ospatzeko afaria.

### Iraila

**Irailak 28:** Gaztelekuaren irekiera.  
**Irailak 30. Jubilatut eguna:**  
09:30ean: Goiz eresia txistulariekin  
11:00etan: Meza  
12:00etan: Hamaiketakoa,  
Bizi Nahi elkartearen eskutik  
14:00etan: Bazkaria Nautikon  
Bazkalostean, sari banaketa

### Andra Mari jaiak 2012

**Abuztuak 14, asteartea**  
21:00etan, herri afaria  
Bizi Nai elkartearen.

**Abuztuak 15, asteazkena**  
**Andra Mari jaiak**  
09:30ean - Goiz eresia txistulariekin  
11:00etan - Meza  
11:30ean - Hamaiketakoa, goiko plazan  
12:30ean - Toka txapelketa, goiko plazan  
Arratsaldean - Pilota partidak  
Sagardo dastaketa

### Urtxiko irailak 2012

**Irailak 14, ostirala**  
Gurutze Deunaren eguna.  
Meza, hamaiketakoa eta bazkaria.  
Iluntzean, erromeria.  
Trikitaliak egun guztian zehar izango dira.

**Irailak 15, larunbata**  
Gaueko 21:00etan, lagun arteko afaria, eta, ondoren, erromeria trikitilariarekin.

**Irailak 16, igandea**  
Meza, hamaiketakoa eta bazkaria.  
Arratsaldean, herri-kirolak.  
Iluntzean, erromeria.  
Trikitaliak egun guztian zehar izango dira.

### Herriko jaiak 2012

**Irailak 21, ostirala**  
Haur jolasak  
Jubilatuaren karta lehiaketa  
Futbola  
Herri afaria  
Kontzertuak

**Irailak 22, larunbata**  
Haur tailerrak  
Beitiko igoera  
Paella lehiaketa  
Jolasak  
Bokadillo jana

**Irailak 23, igandea**  
Altzagaratera igoera  
Puzgarriak  
Hamaiketakoa  
Euskal dantzak  
Bazkaria+Kuxkuxtu  
Pilota partidak  
Sagardo dastaketa

## Telefono interesgarriak



**Udaletxea** 943 881170

- **Gizarte Langilea**
- **Udal Arkitektoa**
- **Epaitegia**

**Haurreskola** 943 164831

**Herri Eskola** 943 887704

**Arbel-Aitz Elkarte** 943 881339

**Lurdes Janari Denda** 943 885236

**Arrastoa Botika** 943 882148

**Medikuarenean Txanda Hartzeko**

943 805800

**Kaxintane Taberna** 606 756551

**Nautiko Taberna / Izaskun Hotela**

943 880012

**Izaskun Ileapaindegia** 943 160285

**Sasieta** 943 161555

**Traste Zaharrak** 943 161590

**Taxi (Ordizia)** 943 881486

## itsasondo.e.o

Herriko Aldizkaria (( 17. zk )) Ekain-Iraila 2012

### Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga  
Aranzadi Elkarte  
Axier Bazaga  
Belen Mendizabal  
Danel Etxeberria  
Eduardo Ayuso  
Eskolako haurrak  
Erkuden Mendizabal  
Gorka Telleria  
Haizea Arruti  
Haurreskolako Hezitzaileak  
Iker Uson  
Iturritxiki Guraso Elkarte  
Jose Ignacio Duhau  
Jubilatuak  
Maite Lasa  
Maite Riaño  
Maixabel Garmendia  
Mikel Mendizabal  
Miren Aburuza  
Nagore Etxeberria  
Rosi Noguera  
Unai Agirre  
Zuberoa Jauregi

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua: ISSN:  
SS-297-2010 2171-5572

**GOGORARAZTEN DIZUEGU  
HURRENGO ALEA  
IRILEAN IZANGO  
DUZUTELA ETXEAN**